



Azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretua, enpresa-kaudimena eta energia-sektorea sustatzeko neurriak aurreikusteaz gain, zenbait zerga-neurri arautzen dituena

BEZan eragina dutenak:

1 - Behin-behinean, %21eko zerga tipoa %4ra murrizten da musuko kirurgiko ez erabilgarrietan, bai emateetan bai inportazioetan zein batasun barruko erosketetan, betiere, eroslea ez denean entitate publikoa, irabazi asmorik gabekoa edo ospitalea. Neurri hori 2021eko abenduaren 31era arte luzatuko da, eta 2020ko azaroaren 19an sartuko da indarrean.

2 - 2021eko apirilaren 30era arte luzatu da %0 zerga tipoaren aplikazioa COVID-19ari aurre egiteko osasun- gaiantzat, erosleak entitate publikoak, irabazi asmorik gabekoak eta ospitaleak direnean. Neurriok 2020ko azaroaren 1etik aurrera eragiten dien ondasunen zerrenda Errege Lege Dekretu honen eranskinean ageri da eta aurreko araudian baino ondasun gehiago azaltzen dira.

2020ko azaroaren 1etik aurrera eta araudia indarrean sartu arteko fakturak zuzendu beharko dira BEZaren araudiak aurreikusi bezala.